

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1995ko abenduaren 8a

*



Sahara eta Kroaziara elkartasunaren bidetik

■ Asteazkenean Tindufeko (Aljeria) erre-
fluxiatu esparruetarantz abiatu zen SODE-
PAZ gobernuz kanpoko erakundeak anto-
latu taldea. Lehen aldiz, hainbat herritako
zinegotziak eta Nafarroako Parlamentuko
bost kide abiatu ziren taldeko kideekin ba-
tera. Bost urte luze daramatza Nafarroako

elkarte honek Saharako herria laguntzen.
Kazetari eta artistek osatutako lagun talde
berri batek, bestalde, Kroazian dagoen
Karlovac herriaren aldeko kanpaina jarri
du martxan dirua lortzeko asmoz. Ekimen
bi hauetako ordezkariekin mintzatu gara
euren proiektuez.

Pelotazoa kopeta erdian

Metropoli forala

FELIPE RIUS



Pelotazoak kopetaren erdian jo zuen
eta esnatu zenean basamortua ikusi
zuen kartzelako leihotik. Beste edozei-
nek teilatuak, kaleak, jendea, kotxeak
eta mugimendua ikusiko zituen hiriaren
erdian kokaturiko presondegitik, baina
bere aurrean sekula bukatzen ez zen
desertu lehorra baino ez zegoen.
Umeen amesgaiztoetan bezala, lagu-
nen izenak oihukatu zituen. Gero,
egoeraren erredikuluz ohartu zenean,
telefono zelularra bilatu zuen txaketa-
ren poltsikoan. Ez zegoen deus, ordea,
ez dirurik, ez urrezko Visarik, ez giltzik,
ezer ere ez. Telefonoa izan balu ere,
inork ez zukeen erantzungo, garaj ba-
tean egindako mesedeak laster ahaz-
ten ditu jendeak eta inork ez du erori
denarekin nahastu nahí. Ez zuen uler-
tzen zer gertatzen ari zitzaion, bera ez
zen galtzaile bat, ez zuen zerikusirik

kartzelako pasiloetan gurutzatu zi-
tzaizkion gaizkileekin —batzuen aur-
pegietan irrifarrak antzeman zituen—.
Bazekien kartzelaren bestaldean, be-
rak ikusi ezin zuen tokian, ondasunez
beteriko lorategi eder bat zegoela, bo-
terea dutenen erabilera eskusiboko
lorategia, eta pentsatu zuen ez zela be-
hin ere itzuliko. Apaiza zenean askotan
irakurri zituen paradisuaren galerari bu-
ruzko orrialdeak, baina bakarrik orain
uler zitzakeen Adanen sentimenduak.
Negar egin zuen, eta negarraldiaren
erdian hainbestetan esana zuen Etika
hitza etorri zitzaion burura, Boterea-
ren Erotikotasunak suntsituriko Etika,
eta momentu batez ez zuen jakin zer
egin, negarrez jarraitu edo parrez hasi.
Bere burua lasaitzen saiatu zen: ez
zen zaila izango fiantza biltzea, seguro
baten bat bulegoetan barrera zebilela

aspaldiko adiskidetasunak eta parran-
dak gogoraraziz. Arazo bakarra az-
ken boladan Erresuma Zaharrean he-
daturiko amnesia izurritea zen, berak
epailearen aurrean izan zuen amnesia
berbera: ez naiz deustaz gogoratzen,
ez dakit nondik atera den hori, ez da-
kit, ez naiz gogoratzen, ez dut horren
berri, errepikatzen zuen denbora guz-
tian mahaiaren gainean zeuden pa-
perei begira. Ongi zekien kartzelako
egonaldia ez zela luzea izango, bere
kategoriako guztiak bezala laster ate-
rako zen diru truke, bera ez baitzen
galtzeko jaioren gizajoz horietako
bat. Hala ere triste zegoen, aurreran-
tzean basamortua baino ez zuen izan-
go begien aurrean, ezinezkoa zen bo-
teredunen lorategira itzultzea. Mina
sentitu zuen kopetan. Pelotazoa gogo-
rra zen, oso gogorra. X

ERAKUSKETAK

Zizur Nagusia: Kultur Etxean Carlos Ziriza margolariaren lanak dira ikusgai abenduaren 17ra bitartean. Astegunetan 19.00etatik 20.30etara bitartean, jaiegunetan, berriz, 12.30etatik 14.00etara bitartean.

Iruñea: Pintzel aretoan Carlos Lopez margolariaren lanak daude ikusgai abenduaren 29a arte. Erakusketa, 10.00etatik 13.30etara eta 16.30etatik 20etara egonen da zabalik astegunetan, eta larunbatean 10.00etatik 13.30etara bitartean. Igandetan erakusketa itxia dago.

Altsasu: Altsasuko Dendarien Elkarteak antolatuta, herriko 46 dendatan Sakanako hamabi margolarien lanak dira ikusgai hil honen 23a bitartean.

Kaskante: Kultur Etxean Malon de Etxaide pintura lehiaketara aurkeztu dituzten lanak ikusgai dira, datorren igandera bitartean.

KONTZERTUAK

Lizarrak: Flitter, Boicot eta Codigo Neurotico taldeek kontzertua eskainiko dute bihar, gaueko hamarretan, Oncineda institutuko karpan.

Elizondo: Dentera taldeak kontzertua eskainiko du abenduaren 15ean Casino ostatuan, gaueko 22.30etatik aurrera.

Iruñea: Vargas Blues Band taldeak emanaldia eskainiko du Reverendos dantzalekuan, datorren ostegunetan, gaueko 21.30etan. Sarrera 1.500 pezetan izango da.

Berbintzana: Nafarroako Akordeoi Orkestrak kontzertua eskainiko du San Isidro zentroan bihar, arratsaldeko zortzi terditan.

ANTZERKIA

Iruñea: Gaiarre antzokiko konpainia titularrak *Marta la piadosa* obra taularatu du gaur, bihar eta etzi Gaiarren, arratsaldeko zortzietan. Sarrera mila pezetan izango da.

Aras: Scaramouche antzerki taldeak *Cineman* obra taularatu du plazan, arratsaldeko 19.30etan, *Udazkeneko Bira 95* egitarauaren barruan.

ZINEMA

Zangoza: Principe Enrique de Labrit zinema aretoan *Una foca en mi casa* filmea emango dute abenduaren 28an, Kultur Zikloaren barruan. Arratsaldeko 17.30etan izanen da, eta sarrera ehun pezetan izanen da.

BESTELAKOAK

Iruñea: Pako Aristi idazleak hitzaldia eskainiko du datorren asteazkenean Zapateria 40ko aretoan, arratsaldeko 19.30etatik aurrera.

nafarkronika

Patxi Larrion

Logroñotik Durangora

Logroño pausaleku duten bi horiek, kultura jakin baten adierazle apartak. Kultura hitza bestelako gertakizunak definitzeko erabili ohi dugu. Gurean idazten dela kasurako. Durango atxakia harturik, maizago bisitatu beharreko horietan aurki daitezkeenak izolasa. Molde eta plegu desberdinak, berezitasun markarik ezarri nahi duenak jai dauka, honetan ere aniztasuna definitzen baikaitu. Ondorean, ezagutua bezain maitatua nahi dudana alor hau ezaugarritzen duten hainbat gertakizun.

Jauntxorik ez duen eremua da gurea. Gainera zubia madarikatua izanda ere, uren gardentasuna aspaldikoa da. Badena dena denez ez-

kutuko katebegiak antzeman ezinak suerta daitezke. Halere, pakean utzi arte bilaketa horretan jarraituko duena bada gurean, hainbatetan honatago eduki beharko genukeena eta zurian zirika aritzeko eta tokian tokitik munta handiko proiektuak egiteko gai dena diren bezalaxe. Ibilbidean mapa lagun, gurutz eta bidezidorrak non-nahi baitira. Minik ematen ez duten hausturak ezagutzeko parada izanen dugu. Aintzinitatea urdinez tintaturik azalduko zaigu.

Mendebalera eraman dituzte bi horiek, iparralderago bada ere, mendebaldean dugu zitak ere.

Idazten da, leitzearena gure kontu.



asteko pertsonaiak



Gabriel Urralburu Nafarroako Gobernuko lehendakari ohia

■ Gabriel Urralburu Nafarroako Gobernuko lehendakari ohia joan den ostegun gauean atxilotu zuen Poliziak, Juan Manuel Fernandez epailearen aurrean arratsalde osoan deklaratu eta gero. Aurretik, Antonio Aragon Nafarroako Gobernuko Herrilanteko kontseilari ohia atxilotzeko agindua emana zuen epaileak, goizean deklaratu ondoren. Gabriel Urralburu eta Antonio Aragon Nafarroako Gobernuan zuedenean herrilanteko adjudikazioaren truke diru komisioak jaso omen zituztelako deitu zituen deklaratzera epaileak. Urralburu Logroñoko espetxean da orain Antonio Aragonekin batera, 100 milioi pezetako fidantza ordaintzeko zain. Javier Asiain bien abokatuak atzo aurkeztu zuen PSNko bi agintari ohien espetxeratze aginduaren aurkako errekurtsioa.



Patxi Zabaleta Idazle eta parlamentarioa

■ Patxi Zabaleta abokatu, parlamentario eta idazleak *Badena dena da* eleberria aurkeztu zuen joan den astelehenean Iruñean. Nafarroako Txalaparta argitaletxeak argitaratutako eleberri hau, *Ukoreka*-rekin iaz hasi zuen trilogiaren bigarren emaitza da, Gerra Zibilean eta Erriberako kobazuloetan bizi zirenen ingurukoa. Liburua Arpetan eta Eltzurrietan grotua dago, 36ko gerra piztu zen garai latz hartan. Garai gogorra eta erabakigarria izan arren, ez da gune historikoa liburuaren ezaugarri garrantzitsuenak, Zabaletaren ustetan. «Niretzat literatura ez da bakarrik edertasuna bilatzeko bide bat, ez da kondaira bat, zerbaiterako erabiltzen den tresna baizik, ideiak azaltzeko modua, lekukotasuna uzteko parada», erran zuen Leitzakoak.

ahaztu gabe!



ANTZERKIA

Iruñea: Azkoiengo La Trapera antzerki konpainiak *La Nona* bere azken lana estreinatuko du igandean Nafarroako Antzerki Eskolako aretoan. Antzerki Eskolako antolatutako udazkeneko antzerki zikloaren barruan eskainiko dute ikuskizuna, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Roberto Cossa argentinarrak idatzitako obra hau Marcelo Vernengok zuzentzen du. *La Nona*, berriz, Ignacio Orduñak egiten du. Jan eta jan besterik egiten ez duen Italiako amona baten istorioa kontatzen du, eta bere etxeko sukaldean gertatzen da akzio guztia. Duen gosea asetzeko adina diru ez dagoelako pizten da gatazka.

La Trapera antzerki taldeak zortzi urte beteko ditu datorren urtarilaren leian. Urterik urte antzeztan berri bat estreinatu izan dute Azkoiengoek, eta usadioa urte berriarekin hautsiko dute, estreinatu berria duten *La Nona* -Roberto Cossaren lanik garrantzitsuenetarikoa- antzeztanaren emanaldiekin jarraitzeko asmoa baitute. Marcelo Vernengok zuzendutako obra, esan bezala, etzi estreinatuko dute Nafarroako Antzerki Eskolako aretoan.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobaitailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar, 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainera*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Zangoza

Abenduko kultur egitaraua martxan

Eguberriak direla-eta hauen inguruko ekitaldi bereziak antolatu ditu Kultur Etxeak

Eguberriak gainean ditugula kontuan hartuz, hainbat ekitaldi antolatu ditu hauen inguruan Zangozako kultur Etxeak. Abenduan zehar luzatuko da Zangozako egitaraua eta hitzaldiak, antzerki eta dantza ikuskizunak eta kalejira eta erakusketak izanen dira, besteak beste. Olentzaroren 25. urteurrena ospatzeko ere ekintza bereziak antolatu ditu Kultur Etxeak.

Erredakzioa / Iruñea

ZANGOZAKO. Kultur Etxeak abenduan zehar egingen dituzten kultur ekitaldiak prestatu eta ezagutarazi ditu jada. Ekintza horien artean, noski, Eguberri buruzkoak izanen dira nagusi. Baina izanen da ikusteko eta egiteko besterik ere. Eguberri estuki lotuta dagoen gaia aukeratu du Zangozako Kultur Etxeak lehen ekitaldia antolatzeko, honen 25. urteurrena ospatzen dela aitzakiatzat hartuz, horren inguruan eskultura, pintura eta eszenografia alorreko lehiaketako lanak ikusgai izanen baitira abenduaren 7a eta 21a bitartean Kultur Etxean bertan. Leku berean, halaber, hil honen 22a eta urtarrilaren 8a bitartean, jaiotzen erakusketa egonen da. Liburutegian, berriz, Gabonak gaitzat dituzten liburuak, abenduaren 18tik urtarrilaren 8ra izango dira ikusgai.

Olentzarorekin zerikusirik duten ekitaldi gehiago izanen da abenduan zehar. Hilaren 15ean, hain zuzen, Olentzarok Euskal



Gabonak direla-eta ekitaldi anitz antolatu dute Zangozan.

ARTXIBOKOA

Herriko tradizioan duen garrantziagatik ariko da Juan Antonio Urbeltz, Kultur Etxean arratsaldeko zortzi t'erdietan.

Bestalde, Gwynfyd antzerki eta dantza konpainiak *Beste munduetako soinua* ikuskizuna aurkeztuko du Antonio Eslava institutuan, arratsaldeko zortzi t'erdietan.

Gabonak allegatuta honen inguruko ekitaldiak areagotu egingen dira Zangozan eta hamaika

gauza ezberdin egonen da ikusteko egun horietan zehar. Abenduaren 22an, hain zuzen, Eguberri ongi etorria emateko asmoz, pregoia irakurriko du Jesus Mauleonek. Auroros taldeak, berriz, Gabonetako kantak abestuko ditu Kultur Etxean eta jaiotzen erakusketaren inaugurazioarekin bat eginez, askaria izanen da bertan bildutakoentzat.

Gabon Egunean, azkenik, Ga-

bonetako kantek lagunduta kalejira egingen dute zangozarrek. Arkupetik abiatuko dira eta ibilbideak San Miguel, Los Pozancos, Aragon etorbidea, Bakearen plaza eta Belate kaleetatik jarraituko du. Arkupetan bukatzeko. Arratsaldeko bost t'erdietan hasiko da kalejira eta zazpi t'erdietan txokolate janarekin bukatuko da. Ibilbidean zehar puxiak eta gozokiak banatuko dizkiete haurrei.

Lizarra

Lehen komiki lehiaketa prest

Gazteendako Informazio Bulegoak antolatu du

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAKO Udaleko Gazteendako Informazio Bulegoak lehen komiki lehiaketa antolatu du herriko hamabost eta hogeita hamar urte bitarteko gazteentzat.

Partehartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izanen ditu. Epea, hil honen 27an amaituko da.

Gaiari dagokionez, *Hegoaldearen bila* lelopean antolatu dute Udaleko arduradunek aipatu komiki lehiaketa eta, beraz, Hirugarren Mundua deitu herrien errealitateari buruzko gogoeta positiboa egin beharko dute komikigileek. Lanak euskaraz edo erdaraz aurkezteko aukera izanen dute partehartzaileek.

Epaimahaiko kideek bi sari banatuko dituzte. Irabazleak 80.000 pezeta eskuratuko ditu eta bigarrenak, berriz, 40.000. Komiki lehiaketako antolatzailerak, halaber, 20.000 pezetako hiru sari berezi emateko prest dira: lehenengoa gidoi onenarentzat, bigarrena herriko egilerik onenarentzat eta hirugarrena, saririk jaso ez duen euskarazko istoriorik onenarentzat. Azken sari hau Udaleko Euskara Zerbitzuak emanen du.

Behin sariak banatuta, erakusketa antolatuko dute lehiaketan parte hartuko duten lan guztiekin. Parte hartu nahi duenak udaletxera eraman behar du bere obra edo bestela, postaz Gazteendako Informazio Bulegora igorri.

Lekunberri

Plazaolaren ikastaroak aurki

Arrainei eta ardoei buruzkoak izanen dira

Erredakzioa / Iruñea

LEKUNBERRIKO Plazaola partzuergo turistikoak bi ikastaro antolatu ditu, parte hartu nahi duen edonorentzat zabalduak. Ikastaro horietako lehenengoa, *Arrainak jatetxeko kartan* izenekoa, alegia, abenduaren 13, 14 eta 15ean egingen dute Leitzako Basa-Kabi hotolean, arratsaldeko bostetatik gaueko zortziak bitartean. Ikastaro honetan parte hartu nahi duten partzuergoko kideek 2.500 pezeta ordaindu beharko dute eta kide ez direnek 5.000. Arrainari buruzko hamaika xehetasun ikasiko dituzte, garbiketa eta tratamendutik hasi eta aurkezpenarekin amaitu arte. Irakaslea Alejandro Mujika Basa-Kabi hoteleko jabea izanen da.

Beste ikastaroak ardoak izanen ditu ardatz eta Lekunberriko Katta-Gorri elkartearen izanen da, abenduaren 18 eta 19an. Irakaslea Javier Otsoa enologoa izanen da eta matrikula, berriz, 2.500 pezetakoa izanen da partzuergoko bazkideentzat eta 5.000koa gainontzekoentzat. Ardoak aztertu ahal izateko gutxienezko arauak ezagutarazi nahi ditu ikastaro honek eta, besteak beste, ardoa egiteko eraz eta upelategiez mintzatuko dira bertan. Ikastaroaren ordutegiari dagokionez, arratsaldeko bostak eta zortziak bitartean izanen da.

Bi ikastaroetan parte hartu nahi duten bazkideek 4.000 pezeta baino ez dute ordaindu behar eta 9.000 gainontzekoek.

Kartzelako gaia *

Juan Kruz Lakasta

Ez ziren gosaltzera igo

«Diana entzuten dudalarik ohetik altxa eta errantxua jateko prest banengo, soldadutza egingen nukkeen». Argudioa hamaika aldiz errepikatu izan diot espetxe zaintzako epaileari, gosaltzera igotzen ez naizelako funtzionarioek ezartzen dizkidaten zigorrak direla-eta bata bestearen atzetik igorri dizkiodan helegiteetan. Berak, baina, nire errekursoak Z letrari dagokion karpentan —zetaz hasten da zaborra hitza— artxibatzen ditu, eta ez ditu inoiz aintzat hartzen.

Dena dela, ni ez naiz gosaltzera igotzen ez den bakarra. Kide gehienek gauza bera egiten dute. Batetik, nahiago dugu ohean ordu beste erditxo bat eman, kafesne epel



motela, *Suavina* izeneko margarina zaporegabea eta gaileta goibel batzuk gosaldutza baino. Bestetik, ez dugu funtzionarioen arau zentzugabeak obeditu nahi, eta halabeharrez gosaltzera igo behar izatea arau zentzugabea iruditzen zaigu.

Abenduaren lehenean, alta, ohitura alde batera utzi, soldadutza egiteko prest bainintzen, eta gosaltzera igo nintzen. Goizeko zortzi t'erdietako juana —sirena hotsa— entzun bezain pronto, ziztu bizian jantokirantz abiatu nintzen. Bidean gosaltzera sekula santan igotzen ez diren beste hainbat kide intsumisorekin topo egin nuen. Guztion ezpainetan irribarrea ageri zen, eta behin eta berriz galdera bera entzun zitekeen aho irribarretsuz aho irribarretsuz: «Jgoko al dira gosaltzera?».

Jantokira igo ginen, gosaldutza ginen, eta txabolaria itzuli ginen, eta ez genituen ikusi. Ez ziren gosaltzera igo. Lastima. Gutxienez, hemendik aurrera beste argudio bat izanen dugu gosarietako parteari errekurritzeko tenorean: «G.U. eta A.A. ez ziren gosaltzera igo eta ez zituen inork zigortu».

P.D.: Barka iezadala Aingeru Epaltza idazle handiak etorria ez zaidalako berak proposatutako bidetik etorri. Hala ere, mila esker anitz aipamen eta gomendioagatik.

Nafarroak badu nor lagundu

SODEPAZ elkarteko kideak Tindufen eta artista eta kazetari nafarrak Karlovacen aldeko kanpainan

Nafarroako elkartasunak Aljerian eta Kroazian izan du helmuga egun hauetan. Aljeriako Tinduf hiritik hurbil Saharako errefuxiatuen dendak daude, eta bertara abiatu da SODEPAZ elkarteko talde bat Nafarroako Parlamentuko bost kiderekin batera. Kroazian, bestalde, Karlovac herria dago, eta bertako biztanleak laguntzeko asmoz kanpaina jarri du martxan artistaz eta kazetariz osatutako lagun talde batek.

Edurne Elizondo / Iruñea

BOSNIAKO, Errusiako eta Saharako haurrak Nafarroan izan dira udan; hemengo hainbat gobernu kanpoko erakunde ekarrita. Itzultzeko garaia nahi baino lasterrago iritsi zen, eta irailaz geroztik etxean dira berriro. Nafarroako elkarte eta herri horien arteko harremana, ordea, ez da eten eta elkarlanean jarraitu dute azken hilabeteetan zehar. Gobernu kanpoko erakunde horietako bat da, hain zuzen, SODEPAZ. 1989. urtean sortu zen Nafarroan, eta Saharako herria laguntzea da munduan zehar betetzen duen lanetako bat. Asteazkenean Tindufeko (Aljeria) errefuxiatu eremuetarantz abiatu zen erakunde horretako hainbat kide —medikuak, erizainak, psikologoak—. Nafarroako zinegotzi eta Parlamentuko bost kiderekin batera. Igandean itzuliko dira bertatik.

Egun hauetan, halaber, bada gufe artean laguntza proiektu bat abian jarri duen beste talde bat. Ez du izenik, ordea, kazetari eta artistek osatutako lagun taldea baita. Normalean antolatzen diren kanpaina handi eta orokorren parean, proiektu txikiagoak eta pertsonalizatuagoak aldarrikatzeko elkartu dira. Kroaziako ipar-mendebaldean dagoen Karlovac herria da nafar hauen helburua. Daytonen (Estatu Batuak) sinatutako bake akordioa dela eta, bertatik ihes egindako errefuxiatuak itzultzen hasi dira. Herria, alabaina, erabat kiskalita dago eta inguru osoa minaz jositako. Mina horiek indargabetzeko aparailua, argia sortzeko generadorea eta ur edangarria lortzeko arazgailuak erosteko diru laguntza lortzeko kanpaina jarri dute martxan.

Olga Brajnovic, Virginia Gil eta Jose Luis Miral kazetariak, Merche Galindo argazkilaria eta John Otazu margolaria dira Karlovac herriko biztanleak laguntzeko abian jarri den proiektu honetan murgildu direnak. Ju-



Azaroaren 21ean sinatu zuten Bosniako bake akordioa.

ARTXIBOKOA

goslavia ohiko gerraren ondorioak gertutik ikusi dituzte, behin baino gehiagotan izan baitira bertan, Nafarroako zenbait gobernu kanpoko erakunderen eskutik. Talde gehienek bultzatzen dituzten proiektu orokorrak baino gehiago, behar zehatzei erantzutea helburu duten kanpainak jarri nahi izan dituzte martxan, eta horren ondorioz sortu da egun hauetan hasi dutena. Taldekideek azaldu dutenez, «kanpaina orokorrak beharrezkoak dira baina batzuetan ekintza zehatz eta txikiak eraginkorragoak dira».

Virginia Gil: «Kanpaina orokorrak baino eraginkorragoak dira sarri proiektu zehatzak»

Kroazian dago Karlovac herria, baina Bosnia eta Serbiako mugetatik oso hurbil. Gerra hasi aurretik 81.000 lagun inguru bizi zen bertan. 1991. urtean serbiarrek egin lehen erasoak zirela eta alde egindako herritar asko etxera itzultzen hasi da azken boladan. Virginia Gil kazetariak hiri horretako arazo larrien berri eman digu: «Etxeak kiskalita daude, lurra minaz jositako eta negua badator. Hamalau eta 16 gradu zero azpitik izanen dute laster». Karlovac inguruko agintariek nazioarteko herriei deialdia egin zieten orain hilabete batzuk ura arazteko, argi generadoreak eta minak indargabetzeko aparailuak eskatuz.

Horiek guztiak erosi ahal izateko dirua lortzeko, beraz, hainbat ekintza antolatu dituzte. Astelehenean, hain zuzen, Xahutondo antzerki taldeak *Canciones del Viejo Sur* taularatu zuen Principe de Viana institutuko antzo-

kian. Tennessee Williams eta John Kennedy Tooleren testu-tan oinarritutako obra da Jose Luis Miralek zuzentzen duen hau. Iruñeko Udalarekin hitzarmena du talde honek, eta horri esker obra honengatik dagokion dirua Karlovac herria laguntzeko erabiliko du Xahutondok.

Talde horretako kide den John Otazu margolariak, bestalde, *Apuntes de Split* izeneko margo erakusketa osatu du karlovacen alde. Joan den igandea bitartean Internacional garagardotegian izan da ikusgai Iruñean, baina beste hainbat lekutara ere era-

Teresa Arostegi: «Urtean sei hilabetez bi urte arteko haurren elikadura bermatzen dugu»

mateko asmoa badute taldeko lagunak. Jugoslavia ohian ikusitakoek eta bizitakoek eragindako erakusketa dela aitortu digu Otazuk.

Asteartean, azkenik, Irrati maratola egin zuen Onda Ceroko Onda 10 emisora Karlovacen aldeko taldeak. Bertan, hain zuzen, Karlovac herriko biztanleen testigantza jaso zuten eta euren ahotik entzun ahal izan zituzten entzuleek herri horrek egun dituen premiarik larrienak. Maratoi horri esker 250.000 pezeta inguru bildu dituzte. Dirua, Nafarroako hainbat udaletzek eta irrati deitutako lagunak eman zuten. Virginia Gilentzat diru gutxi bada ere, «persona askok bertakoen beharrak entzunda gauza zehatzak eskainiz deitu zuten, bai platerak, bai ohe bat eta abar. Eta hori ere garrantzitsua da». Lagun talde honen lana, hala ere, ez da maratoi horretan amaitu, aurrera jarraitzeko prest baitira denak, «bai argi generadorea, bai minak indargabetzeko aparailua, bai beste edozer erosteko adina diru lortu arte».

Nafarroako bost parlamentari

Saharan • Jugoslavia ohia ez da Nafarroako taldeen helburu bakarra. SODEPAZ gobernu kanpoko erakundeak, adibidez, bost urte daramatza Saharako herria laguntzeko proiektuak aurrera eramaten, beste hainbat lanei artean. Teresa Arostegi Nafarroako elkarte horretako koordinatzailearekin mintzatu gara Tindufeko errefuxiatu eremuetarantz seigarren aldiz joan baino pixka bat lehentxeago. Madrilik hegazkinez abiatu ziren asteazkenean berarekin batera elkarteko beste hainbat kide —erizainak, medikuak eta psikologoak— eta Nafarroako hainbat herritako zinegotzi eta Parlamentuko bost kide —Felix Taberna (IU), Floren Aoz (HB), Begoña Errasti (EA), Jose Maria Ezpeleta (PSN) eta Inmaculada Matias (CDN)—. Igandean itzuliko da 30 lagunek osatutako taldea.

Elkartasun bidaiatzat jo du Arostegik elkarteak prestatu duen azken hau, bertara joan eta egungo egoeraren berri zehatza izateko antolatu baitute, eta ez beste askotan bezala, janaria edo beste edozer eramateko. Alde batetik, Aljeriako egoera politikoa dela eta ezin izan du orain arte bezala bidaiari herri hau kamioiez zeharkatuz burutu, arriskutsua baita. Bestetik, Nafarroako Parlamentuko kideek eta zinegotziek osatutako ordezkari taldeak bertako beste hainbat agintarirekin harremanetan izatea da oraingo bidaiaren helburua. Izan ere, Kooperazio ministroarekin elkartuko dira, baita osasun alorreko beste ordezkariekin ere. Saharako Errepublikako lehendakari eta Fronte Polisarioko

Xanti Begiristain

Lapur handiak

■ «Lapur txikiak kastigatzeko nonahi badago kartzela haundiak hor ikusten ditut pasuan dabiltzala

Kopla, edo agian bertso zati hau Txirritak egin delakoan nago, eta ikusten denez, mezu horrek ez du galdu gaurkotasuna zoritxarrez. Zergatik diodan hori? Ba, konbentzituta nagoelako Antonio Aragon eta Gabriel Urralbururen fiantzak berehalaxe ordainduko dituztela eta aida batean kalean izango ditugu ziur aski burua altxa-altxa eginda, itxuraz behinik behin, eta paseoa koplak dioen bezalaxe.

Une batez Gabriel Urralbururen gurasoekin oroitzen naiz eta pentsatzen dut a zer nolako kolpea hartu behar izan duten *ile zildun* seme horrekin! Pentsa dezagun hasieran zer nolako ibilbide polit eta erudugarria izan zuen bere gurasoentzat: mutil zintzoa, frailegaita, frailea eta gero gobernuburu. Orduan, ziur nago gurasoak guztiz harro egongo zirela seme horrekin, baina gaur egun, se-
guru asko, ez dute lotsa gutxi sentituko seme horrek egindako lapurretak direla bide. Oraindik orain, entzun dudanez, Gabriel Urralbururen aitak han jarraitzen omen du, herrian, artaldearekin, etabarrekin. Bere buruarekin, behintzat, egon ahalko da nahiko harro beti ere lerroan aritu delako, desklasatu gabe eta jende apala zapaldu barik. Oso beste-lako adibide lotsa-

mangarria, uste dut, eskaini digula bere seme horrek, zoritxarrez. Nekez eramango dute burua tente protagonista honen gurasoek herrian jende artean frailekondoz oroitzen direnean. Niretzat behintzat, txundigarria da ikustea tamaina eta neurri horietako pertsonak nola itsutu ahal diren horrenbeste, non gai diren hastapen etiko eta zibiko guztiez ahazteko, eta bitartean, gauza dira edozein lotsagabekeria egiteko beren karguaz baliatuz, sakelak betetzeko baldin bada; behin eta berriz errepikatzen dute praktikan honako hau: «Dena patrikaren alde» eta ez, «Dena patriaren alde».

Baina gogora dezagun Gabriel Urralbururen bizitza politikoan zehar gertaturiko pasadizu gehiago, esate baterako, Hego Euskal Herria baturik, ikurrina, euskara (bere amona batek ez omen zekien erdaraz) eta autodeterminazioa aldarrikatzen zituenean. Beranduago bakezale eta tolerantetzat jo zuen bere burua. Gerora indarkeria eta bortxakeriaren aurkako fin eta santu bezala agertu nahi izan zuen, legez kanpo aberasten zen bitartean, Leitzarango autobia kasu. Eta aldi berean

bere handiuste eta nahiak, bazirudien ez zutela mugarik izango, gogora ditzagun esaterako Aranguren ibarreko zaborteziaren egitasmoa, Itoizko urtegiarena, Sakana-Burundako autobiaarena, Beleteko tunelarena, eta abar. Iruñeko metroarena falta izan zuen soil-soilik. Baina, gutxi bailitzan, ez zen horretan gelditu eta gehiagora ere joan zen, Herri Batasunako jendeari, kalean, txu egin behar zitzaioela esan zuenean, adibidez. Hortaz, azter dezagun laburki bere ibilbidea: Herri eta sendi apal batean sortu (hori, printzipioz inorentzat ez da lotsagarria izan behar), mundutxo honetako zeruraino eta handitasun goreneraino igo, eta azkenik, arrapalada bizian, lokatza baino beheragoraino erori, berekoikeriagatik gainera. Hau duk marka hau, *ile zildun zalduna!*

Duela egun gutxi Adolfo Araizek gogorarazten zuen zein zen G. Urralbururen leloa aurreko hauteskunde batzuetan, alegia, ONDRADUTASUNA. Ba, oraintxe utzi dute argi eta garbi zein zen bere ondradutasuna. Era berean, orain ikus dezakegu



zenbat arrazoi zuen Patxi Larrainzarrek kupidarik gabe kritikatzan zuenean bere liburuetan Nafar Gobernuburu Urralburu.

Baina, jakina, lapur handiak beti dira handiak nahiz eta beren gaizki-egiteak larriagoak eta kaltegarriagoak izan. Komunikabideetan A. Aragon eta G. Urralburu «jaunak» esaten diete; lapur txiki eta arruntei, berriz, «gaizkileak» edo «lapurrak» deritzaie besterik gabe; hauek ez dute merezi «jauna» hitza. Eta bukatzeko errepara diezaiegun azken ezberdintasunei lapur txiki eta handien artean: Urralburu eta Aragon ez omen dituzte izan auzitegiko ziegatan baizik eta bulegoetan, Iruñeko espetxean koltxoiak aldatu omen zizkieten gau baterako eta berogailuak jarri. Gaez eraman zituzten, eta Iruñeko kartzela nonbait oso zahartua dagoenez eskatu zuten aldatzea. Eskatu eta egin, horrela ez dute *gozatu* beharko intsumiso lagunen konpainia. Logroñon gela berean, eta abar. Eta halabeharrez ez dute jasan ez tratu txarrik, ez torturarik, ez sakabanaketarik, ez bi mila kilometrorik... Dirudienez, intsumisoak gaizkile handi-
goak dira. ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Unamunoren kezka uxa ezina

■ Migel Unamuno Jugo ospe handiko pentsalari eta idazle bilbotarra guraritu dugu gaurkoan hitzpede. Bestenaz, honako hau elitzateke bilbotarraz diharduen bakarra, Salvatore Mitxelena zenaren lanak ekarri orenean aipatua izan baitzen estraineiko aldiz. Oraingoan berriz, horren begi onez ikusten etzuen beste pertsona baten lekukotasuna agertarazi nahiko genuke. Martin Ugaldek, Argentinako irarkola baten moldeetatik helarazi zigun duela hogeitamar urte eskas Unamunoren euskarari buruz zuen aburua deuseztatuko zuen entseguia, hau da, *Unamuno y el vascuence: contraensayo*, Buenos Airesko Ekin argitaletxean, 1966. urtean. Bere heriotzaren bigarren urteurrenean Larramendiri eskeinitako lan honetan, Unamuno eta euskararen artean sortu zen harreman teinkatua du solasgai. Hagitz sonatua, euskaldunen artean behinik behin, 1888.ean Bilbo hiriko Bizkaia institutoaren katedrarako oposaketaren berri ematen digu. Sei izen ziren izena eman zituztenak: Luis Iza, Sabino Arana, Pedro Alberdi, Eustaquio Madina, Azkue eta Migel Unamuno bera. Naski etxeok ezin izan zuela lortu Lekeitiarrak eskuratu zuena, eta baliteke halako gogo lehiakor eta gustuziatsu batek suminduraren suminduraz haserre eginda euskarari aitzit jotzea bere etsipena baretzeko.

Horrela, 1901. urteko abuztuaren hogeitaseigarren egun baten arrastirian, Bizkaiko hiriburuak bere lehendabiziko joku floralak ospatzen zituela aitzaki, Unamuno bat baino beste inor ausartuko ez zena honela mintzo zitzaion bildutako entzulegoari: «*El vascuence se extingue sin remedio, sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción y muere por ley de vida. No nos apesadumbremos de que muera su cuerpo, pues es para que mejor sobreviva su alma. Lo único que queda es embalsamarlo en ciencia, recoger con filial piedad sus restos y levantarle un monumento funerario*». Hurrengo urtean argitaratuko zuen hitzaldi hau, irail-urriko hilabetetan, *La cuestión del vascuence* izenburuaren azpian, eta berrikiago, *Ensayos* bildumaren lehendabiziko liburukian (Madrile, Aguilar, 1945).

Ugaldek, Unamunoren arrazoiak bilatu nahian, hezkuntzarena aipatu zuen: «*Si don Miguel hubiera encontrado una universidad en Bilbao, San Sebastián, Vitoria o Pamplona, donde por primera vez acaba de ser establecida una, muy cuidadosamente orientada —Opus-arenaz dihardu, naski—, seguramente no hubiese tenido que ir a Salamanca, y acaso todo hubiera sido diferente para él y para su vascuence*».

Hau guziarekin ere, Unamunok euskararekiko jarrera on bat ere izan zuen noiz edo noiz, bere gazte garaian zer edo zer euskaraz egin zuelarik. Santi Onaindiaren olerki bilduman Migelek B. Ertzilla bere lagunari opatu gabon kanta trauskil xamar baten adibidea dugu kausigarri. Hamabi ahapaldietarik lehendabizikoa, hamaikagarrena eta hamaibigarrena aukeratu ditugu erakusgai: «*Iru errege andiak / eldu dira urrutik / aur baten ikustera / munduko edertarik. Gaur da pozaren gaba / kanpoan otza da / baño geuren barruan / asko da berua. Goazen goazen anatak / aurra ikustera / goazen goazen lenballen / anatak aurrera*». Nolanahí ere den, ezer guti gehiago dateke euskaraz ondu zuena, are gutiago euskararen alde izkiriaria, eta Onaindiari jarraituz: «*Arrezkero ez dot uste ezer egin ebanik euskera alde, bai oster, zitalkert nahiko aren aurka*». ■



Nafarroako taldekako txapelketako zortzigarren jardunaldiko partida, 1995eko azaroaren 25ean jokatu.

Luis del Rio (Iruñeko Runa Lakora), 2.005 ELOkoa — Carlos Soler (Tuterako Santa Ana) 2.115 ELOkoa. 1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Zc3,Ac5; 4.Ze5,Af7 xa; 5.Ef7,Ze5; 6.d4.

Ezohiko hasiera. Erregea higituta ere, txuriak erdigunearen jabe dira.

6.....Zg6; 7.Ac4,Dh4 xa; 8.g3,Dh3; 9.Zd5,Ed8.

Beltzen endrokea galarazita geratu da.

10.Df3,f6; 11.Zf4,Zf4; 12.Af4.

Txuriaren garapena hobea da. Piezak jokoan daude. 12.....Ze7; 13.aG-e1,Gf8; 14.e5.


Zutabe hori menperatzea da asmoa.


14.....f5; 15.d5,Dg4; 16.De3,g5.

Bi alfilak mehatxatuta. Baina badago konponbidea. 17.d6,f4; 18.e7 xa, Ee7; 19.f4,b6; 20.hG-g1,Dh4 xa; 21.Dg3,Dg3 xa; 22.Gg3.

Ikus koadroa. Zutabe hori bereganatu izana eta jokorik gabeko alfila dira gakoak partida borobiltzeko. 22.....Gh8; 23.Gg7 xa,Ee8; 24.eG-g1,c6; 25.Gg8 xa,Gg8; 26.Gg8 xa,Ee7; 27.Gg7 xa,Ed8; 28.Gh7,a5; 29.Ad3,b5; 30.Af5,c5; 31.h4,c4; 32.h5,b4; 33.h6,a4; 34.Gh8 xa,Ec7; 35.h7,b3; 36.c-b3,a-b3; 37.a-b3.

Beltzek etsi zuten. Garapen txarrean egon zen kokka.





Pier Paolo Pasoliniren testuak jasotzen dituzte aldizkariako orri nagusiek.

ELGACENA

'Elgacena'-ren 18. zenbakia kalean

Lizarraldeko aldizkariak Pier Paolo Pasolini zinemagilearen testuak jaso ditu

Lizarraldeko 'Elgacena' literatur aldizkariaren 18. zenbakia kalean da. Pier Paolo Pasolini zinemagile italiarraren gaztelez argitaratu gabeko testua irakur daiteke bertan, erdaraz eta euskaraz idatziriko beste lan batzuen artean. Azaleko marrazkia Carmen Salgadoena da.

Edune Elizondo / Iruñea

LIZARRALDEKO *Elgacena* literatur aldizkariaren 18. zenbakia aurkeztu zuten jendaurrean joan den astean argitalpen horretako arduradunek. Almudi Lizarrako kultur elkarteak argitaratzen duen aldizkari honen ibilbidea orain dela hamahiru urte hasi zen, eta azken zenbaki honetan ere lehenengoa argitaratu zuten zeuzkaten asmo berberak dituzte egileek, literatur alorreko izen berriei argitaratzeko aukera eman eta nazioarteko egileen testuak plazaratu, alegia.

Hemezortzigarren zenbaki honetara Pier Paolo Pasolini orain dela hogeitau urte hil zen zinemagile italiarrari eskaintzen dizkio bere orrialde nagusiak. *Elgacena*-k, hain zuzen, Pasolinik hil baino bi aste lehenago Leccen irakasle eta ikasle talde baten aurrean emandako hitzaldiaren sarrera argitaratu du. Testu hau gaztelez argitaratu den lehen aldia da, eta Jesus Juriok egin du itzulpena. Lizarrako aldizkariak Erroman duen Angel Amezketa kolaboratzailearen bitartez eskuratu zuen orain dela urtebete inguru Pier Paolo Pasoliniren testu hau *Elgacena*-ko arduradunek, eta zinemagilearen hilketaren 20. urteurrena zela aitzakiatzat hartuz,

18. zenbaki honetan argitaratu dute, italiarrak bere pinturari buruz idatzitako beste testu, poema bat eta hainbat marrazkirekin batera.

Pier Paolo Pasolini Boloniar jaio zen 1922. urteko martxoaren 5ean eta Erromara joan zen 1949an, 27 urterekin. Erroman *Nouvi Argomenti* aldizkaria zuzendu zuen Alberto Moraviarekin batera, eta bertan lan egin zuen eta bizi izan zen, 1975ean hil zuten arte. Filmeak zuzentzeaz gain, olerkiak, narratioak eta saiakerak ere idatzi zituen. Bere filmeen artean *Mamma Roma* (1962), *El Decameron* (1971) eta *Los cuentos de Canterbury* (1972) aipa daitezke.

Perurena, Juaristi eta Muñozen testuak euskaraz • Pasoliniren idatzez gain, Ali Ahmad Said Esber Adonis deritzan idazle si-

riarrari eta Juan Ramon Masoliver idazle surrealitari egindako bi elkarrizketa jasotzen ditu *Elgacena* aldizkariaren zenbaki berri honek. Lehenengoari dagokionez, gaur egungo poeta arabiarren artean onena dela uste dute aditu askok. Masoliver, bestalde, Italiako Berpizkundeko olerkigintzaren aztertzaile dugu. Berak egindako Cavalcantiren itzulpenak aipatzekoak dira. *La Van-*

Euskaraz, Patziku Perurena, Felipe Juaristi eta Jokin Muñozek idatzi dute hemezortzigarren zenbaki honetan

guardia egunkarian literatur kritikaria da egun.

Erdaraz, bestalde, Steven Svensson, Txabi Urria, Alonso Zamora Vicente, Fernando Aranburu, Ana Serrano, Aitor Onaindia Sós eta Cristina Larak idatzi dute zenbaki honetan, eta euskaraz, Patziku Perurenak, Felipe Juaristik eta Jokin Muñozek. Patziku Perurenarenak argitaratu gabe dagoen *Sentsazioen sotonu trentatuak* poema bildumatik daude hautatuak. Jokin Muñozen lanari dagokionez, *Joxe Mari bat erbestean* izenburuko testua da. Felipe Juaristik, azkenik, *Haize galderak* izenburuko olerkia eman du.

Azalari dagokionez, Iruñean bizi baina Perukoa den Carmen Salgado margolari gazteak egindako marrazkia jasotzen du. Barrualdeko orrietan ere Salgado-
ren beste hainbat lan ikus dai-

Orain hamahiru urte lagunartean

LIZARRAKO *Elgacena* aldizkariako hamazazpigarren zenbakia izan zen Xabier Agirre filosofia irakasle gipuzkoarrak parte hartu zuen lehenengoa. Egundak, erredakzio kontseiluko kide da, Iosu Reparaz, Angel Amezketa eta Javier Corresekin batera. Lizarraldeko literatur aldizkariaren hastapenaz eta nortasunaz mintzatu gara berarekin hemezortzigarren zenbakia kaleratu duten honetan.

Elgacena-k izen berri nahiz eza-gunak batzeko duen asmoa da bere ustez azpimarragarriena. Zenbaki berri honetan, hain zuzen, Txabi Urria intsumisoaren eta Lizarrako 23 urteko Cristina Lara gaztearen lanak nabarmendu ditu Agirrek. «Berriak dira eta indartsu-

datuz» aipatzen du. Ildo berean, aldizkariak duen diseinu berezi eta zainduak osatzen du argitalpen honen nortasuna gipuzkoar-
raren irudikoz. *Elgacena* aldizkariaren ibilbidea orain dela hamahiru urte hasi zen Lizarran, lagunartean, Almudi kultur taldeak bultzatuta. Izen berri eta kontsagratuak batzeaz gain, hemengo kanpokoarekin elkartzeko gogoia ere badu aldizkari honetara. Honela, Europan zehar badiu *Elgacena*-k hiru kolaboratzaile, Frantziar, Italian eta Alemaniaren hain zuzen.

Orain hamahiru urte elkartu lagunartean zituen literatur kez-
kak bultzatuta abiatu zen *Elgacena*. Xabier Agirrek erran digu-

nez, «izan zituen hasieran orain baino garai oparoagoak —urtean hiru ale argitaratu izan zituzten noizbait ere— baina hasierako kezkek bizirik diraute». Agirreraren irudikoz, hain zuzen, «bere lekua irabazi du argitalpenen artean. Ez da beste goimailako literatur aldizkariaren parekoa, baina ezta herri aldizkari arrunta ere. Hasieran lortu nahi zuen ikuspuntu pluralari eutsi dio. Tradizioa badu eta eskatu gabe ere, askotan, jende askoren laguntza jasotzen du».

Elgacena aldizkariaren hemezortzigarren zenbakiaren 550 ale kaleratu eta Hego Euskal Herrian banatu dituzte. Madril eta Valladolidera ere hainbat ale iritsiko dira ziurrenik.



◆ Idoia Mariezkurrena ◆ Txabalina jaurtiketan Espainiako txapelduna

soslaia

Idoia Mariezkurrena hitz gutxiko neska da. Donostian jaioa duela 25 urte, Labaien du familia, nahiz eta bera —kirola dela medio— Nafarroako Gobernuak ematen dion laguntzarekin kirolarientzat dagoen Iruñeko Larrabide egoitzan bizi den. Hala ere, mutilarekin batera Burlatan erosi duen pisura laster bizitzera joanen dela erran digu.

Bere marka hobetzeko entrenamenduek gauza gutxi egiteko beta uzten badiote ere, unibertsitate sartzeko probak gajnditzeko ikasten ari da. Irakasletzako ikasketak egin nahi baititu.

Aita euskalduna duen arren, berak ulertu bai baino deus gutxi hitz egiten du euskaraz. Edozein modutan, kirola egiteari uzten diotenean euskaraz ikasteko asmoa baduela aipatu du. Txabalina jaurtiketa baztertzan duenean, gainera, hain gogoko duen soul musika eta baladak entzuteko aukera gehiago izanen du.

«Atlantarako marka hobetu nahi dut»

Idoia Mariezkurrena la baiendarrak jaso zuen joan den ostiralean 1995. urteko Nafarroako kirolari hoberenaren saria emakumezkoetan. Txabalina jaurtiketan Espainiako markarik onena du egun eta eman berri dioten saria urte askotako lanaren ordaina dela dio.

Irene Arrizurieta / Iruñea

LARRABIDE egoitzan ikasten ari zenean eta arratsaldeko entrenamendura abiatu baino lehen egon ginen eleketan Idoia Mariezkurrenarekin. Jasotako sariak ez dio loa kentzen eta datorren urtean Atlantako Olinpiadetara joateko beharrezko marka lortzeko entrenatzen dihardu gogor.

■ Nola hasi zinen txabalina jaurtiketan, nolakoa izan da orain arte egin duzun bidea?

Nik kirola egin nahi nuen atletismoko arduradunekin mintzatzera joan nintzen Donezteben ikasten ari nintzenean, aukera hori zelako gehien gustatzen zitzaidana, eta probak egin ostean, abiaduran aritzen zirenen taldean sartu ninduten hasieran. Atletismoan bi urtez ibili nintzen, baina beste jaurtiketetan aukera gehiago izanen nituela esan zidaten eta Iruñera etortzean jaurtiketak lantzen hasi nintzen, 17 urterekin. Lanean eta entrenatzen aritzen nintzen eta jaurtiketak egiten ona nintzela ikusi zuten, taldean sartu ninduten eta urtebete geroago Nafarroako Gobernuak Larrabide erresidentzian plaza bat eskaini zidan eta ikasten hasi naiz.

■ Zergatik aukeratu zenuen txabalina eta ez beste aparatu bat?

Abiadura taldetik heldu nintzenez, diskoa jaurtitzan hasi nintzen eta marka onak lortu nituen. Disko jaurtiketetan ona izan arren, txabalina nuen gustuko eta Espainiako Federazioan guztiek horretan jarraitzeko gomendatu



Idoia Mariezkurrenak Nafarroako kirolari onenaren saria jaso du.

JOXE LACALLE

zidaten baldintza onak nituelako, esku azkarra eta belaun indartsuak eduki behar dira eta elastizitatea izan behar duzu 2 metro eta 10-20 zentimetro arteko txabalina urrutira jaurtitzeko.

■ Iragan ostiralean Javier Otano Nafarroako presidentearen eskutik emakumezkoetan 1995eko Nafarroako kirolari onenaren saria jaso zenuen, zer da saria zuretzako?

Urte askotan egin dudana lanaren onartzea da. Nafarroako Gobernuak emandako sariak Nafarroa osoaren errekonozimendua esan nahi du, Induraini emandako sari bera jasotzeko asko adierazten du.

■ Jaso duzun sariak, zuk erran bezala, urtez urte egin duzun lanaren ordaina da, baina ez duzu uste emakumezkoen kirola bigarren mailan dagoela, gutxietsi egiten duela?

Bai horrelaxe da, gurpil zoroarena da, ez da behar beste diru inbertitzen. Emakumezkoen kirola ez dela ikusgarria esaten dute, baina nire ustez kirol ikusgarria lehiakortasunak egiten du eta ez gehiago edo gutxiago jaurtitzeak. Baina lehiakortasuna izateko dirua duten talde asko behar dira, eta guztiak elkarri joka ibiltzea gizonezkoetan gertatzen den moduan, eta horrek mugimendua eta lehiakortasuna dakar. Emakumeetan, aldiz, desfase handia dago, normalean ez da inbertitzen eta, inbertitzen bada, talde bakar batean egiten da eta horrek irabazten du dena. Hori ez da ikuskizuna, ez baitago

gizonezkoetan bezalako norgehiagoka.

■ Espainiako txabalina txapeldun izatera iristerainoko bidea erraza izan da, edo asko lan-dutakoa?

Ez, bidea ez da batere erraza izan, batez ere lesioak direla-eta, oso zorte txarra izan baitut. Hasi nintzenean segituan lortu nituen lehenengo postuetan egoteko gutxiengo markak, eta nire kategorian hobereana nintzen. Baina urte gogorak ere izan ditut leioekin hasi nintzelako, bata bestearen atzetik, lehendabizi ukondoa izan zen, gero sorbalda eta ondoren bizkarra. Garai horretan markei eutsi nien, baina ez nuen deus hobetu. Ukondoko zartadurak zazpi hilabetetan geldirik egotera behartu ninduen, eta hori dela-eta 18 urtetik 21era bitartean ez dut gauza handirik egin.

■ Etorbizunerako zein dira zure asmoak? Atlantan heldu den urtean jokatuko diren Olinpiadetan parte hartzeko itxaropena baduzu?

Momentuz txabalina jaurtiketan dudana Espainiako lehen postua gorde nahi dut eta selekzioarekin parte hartzen duen lehiaketara joateko asmoa daukat. Era berean, Atlantara joateko orain dudana 55,96 metroko marka hobetzeko itxaropena daukat.

■ Atlantara joateko aukerarik baduzula uste duzu?

Bai, baditut. Horretarako entrenatzen ari naiz. Nazioarteko Federazioak gutxieneko B bat eskatzen du, 57 metrokoa eta gutxieneko A bat, 60koa. 57 metroko marka lortu arren ez naute eramanen, baina 60ra iritsiko banintz edo distantziatik hurbil geldituz gero, joanen nintzateke eta hau da neure helburua.

«Saria orain arte egindako lanaren ordaina izan bada ere, hona iristea ez da batere erraza izan»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI EROA

